

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

2026ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematea

Kuartangoko Udalbatzak, 2026eko ekainaren 12an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea udalaren 2026ko ekitaldi ekonomikorako aurrekontu orokorrari.

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espediente hori jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo baliodunetik aurrera. Epe horretan, interesa dutenek espedientea aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsiko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Zuhatu Kuartango, 2026ko ekainaren 15a

Alkate-udalburua
MIREN MEABE CARRO